PDF irisgarria

Irakurketa Errazean

Antsoaingo Hobiak

Antsoaingo Hobiak

Iruñerrian daude, Nafarroan.



Mapa honetan kolore gorrian
Iruñerria non dagoen ikus dezakezu.

1936. urteko Estatu Kolpea eta gero
frankistek San Kristobal Gotorlekua **preso politikoak**,
hau da,frankismoaren aurka zeuden pertsonak
espetxeratzeko erabili zuten.
Errepublikako gobernuko pertsonak
espetxeratu zituzten
eta baita gerra epaiketetan zigortutako pertsonak ere.

San Kristobal Gotorlekuan
egon ziren presoen bizi baldintzak
oso gogorrak ziren.
Horregatik ehunka preso
tuberkulosoia izeneko gaixotasun batengatik hil ziren.

1936 eta 1941 urteen artean frankistek
preso hauek Ezkaba mendiaren inguruan dauden
herrietako hilerrietan lurperatu zituzten.

Baina batzuetan pertsona hauek
hilerriaren kanpoaldean lurperatzen zituzten
2 arrazoirengatik:

- Hilerriaren barruan lekurik ez zegoelako.
- Arrazoi erlijiosoengatik,
  hau da, hildako pertsonak
  ez zuelako Jainkoan sinesten.

Frankistek Antsoaingo hilerrian
20 preso lurperatu zituzten.
Antsoain Ezkaba menditik gertu dago.

2010. urtean
Antsoaingo Udalak
eta Txinparta San Kristobaleko Fuertea elkarteak
plaka bat jarri zuten hilerrian
frankistek bertan lurperatu zituzten presoak gogorarazteko.

2022ko martxoan
Nafarroako Gobernuko
Desobiratze Programaren barruan
desobiratze bat egin zuten
hilerriaren kanpoaldean
preso baten gorpuzkiak aurkitu eta desobiratzeko.
Oraindik ez dakite nor zen preso hori.

Hemen Antsoaingo hilerrian dagoen
plakaren argazkia ikus dezakezu:

